


BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUAK DISEINATZEKO GIDA



Data
Egileak:

2019ko urria
Goizalde Atxutegi (Innobasque)
Gotzon Bernaola (Innobasque)
Marta Iturribarria (Eusko Jaurlaritza)
Marta Rozas (Eusko Jaurlaritza)

Euskarri teknikoa:



 euskadi.eus



BID-REX - BIODIBERTSITATEARI BURUZKO DAUETATIK ERABAKIETARA: NATURAREN BALIOAK HOBETZEA ESKUALDE MAILAKO GARAPEN POLITIKAK HOBETUZ

Gida hau Interreg Europa BID-REX proiektuaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintza Planaren 4. ardatza inplementatzeko ("finantzaketa publikorako irizpideak") programatutako ekintzetako bat da. Ardatz horren helburua da lehentasunak ezartzea aurrekontua esleitzeko, eta funts publikoek finantzatutako ekintzek izandako eraginaren jarraipena egitea biodibertsitateari buruzko informazio garrantzitsua ematen duten ekintzak finantzatzeko, eta, bide batez, sortutako informazioa beste balio publiko bat emateko berrerabiliko dela bermatzea.



EDUKIA

ZERGATIK egin biodibertsitateari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak diseinatzeko gida bat	4
ZEIN DA GIDA HONEN HELBURUA?	6
PROIEKTUAK DISEINATZEKO, INPLEMENTATZEKO ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	7
1) BALIO-PROPOSAMENA.....	7
ZER BEHAR/ERRONKARI ERANTZUN BEHAR DIOGU?.....	9
ZER DAKAR PROPOSAMEN/KONPONBIDE BERRIAK?	9
ZER ONURA IZANGO DITU PROPOSAMENAK?	10
NORK JASOKO DITU PROIEKTUAREN EMAITZAK?.....	10
2) PROPOSAMENAREN KALITATEA	10
PLANGINTZA ON BAT EGITEKO ELEMENTUAK.....	11
PLANGINTZATIK HARAGO DOAN URRATSA – GAUZATZEA ETA EBALUATZEA.....	15
3) ORIENTAZIO ESTRATEGIKOA.....	17
Baina zein dira erronka horiek, zeinetara gure ekintza bideratu behar baitugu?.....	19




ZERGATIK EGIN BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUAK DISEINATZEKO GIDA BAT



Datuak erabaki onak hartzeko daukagun lehengairik onena dira. Izan ere, erabaki horiek lagunduko digute biodibertsitatea zaintzen eta babesten, betiere ikuspegi eta ekintza partekatua izanik.

Gutako bakoitza gara, printzipioz, datu- edo informazio-sortzaile eta -erabiltzaile. Fluxu formalen edo informalen bidez, eskura dugun informazioa partekatzen dugun sistema baten parte gara.

Baina datuak, ezinbestekoak izanik ere, ez dira nahiko biodibertsitatea babesteko erantzun hobeak diseinatzeko. **Ezagutza behar dugu, ez soilik datuak.** Eta horrek esan nahi du, datuak atzitzeaz gain, askoz ere gehiago egiteko gai izan behar dugula:



•Integratu eta kudeatu

•Neurtu eta erregistratu

•Deskribatu eta bistaratu

•Analizatu eta ulertu

•Azaldu eta komunikatu


•Ikasi eta hezi

Eta gure helburua bada **biodibertsitatea babesten lagunduko diguten beste erantzun eta mekanismo batzuk sortzea**, horretan aritu behar dugu elkarrekin. Ezen “dena egiteko”, “guztion artean” egin behar baitugu.

Datuekin gertatzen den bezala, **erakunde publikoek ezin dute izan eta ez dute izan behar, gainera, zeregin horretan inplikaturako eragile bakarrak.** Ezagutza-sarea egituratzen dugun eragile eta pertsona guztiok gara –herritarrak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta erakundeak, unibertsitateak, enpresak, teknologia-zentroak eta administrazioak– **erabakiak hartzeko ezagutza sortzen duen balio-katearen parte.** Lankidetzaren publiko-privatua, beraz, ezinbestekoa da biodibertsitatea babesteko.



Gutako bakoitzak balioa gehitzen eta ekartzen diogu sistema honi, gure lanaren eta proiektuen bidez, eta bakoitzaren ardura- eta eragin-eremutik. Informazioa sortzen dugu, harremanak eraikitzen, eta biodibertsitateak duen garrantziaren balioa onartzen dugu.



ZEIN DA GIDA HONEN HELBURUA?



Bi helburu ditu gida honek. Alde batetik, **biodibertsitateari buruzko ezagutza sortzeko proiektuetara bideratutako funts publikoak esleitzeko tresna bat izatea nahi dugu.**

Erakundeok (udalek, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak) ikuspegi komun bat partekatzeko eta erabaki publikoak ezagutzan oinarrituta hartzen lagunduko diguten proiektuak babesteko tresna.

Baina, helburu horretatik harago, garrantzia handiagoko beste helburu bat ere badugu. Gida hau **biodibertsitatea kontserbatzeko informazio-proiektuetan aktiboki lanean ari zareten eragile eta pertsona guztien laguntza eta euskarri izatea nahi dugu.** Proiektu hobeak, Euskadiren beharretara bideratuago daudenak, eraikitze balio dezala. Izan ere, proiektuen dimentsioa alde batera utzita (baliabideak, denborak, anbizioa eta abar), helburua da guztion artean gehiago egitea.

Gida hau tresna bat izatea nahi dugu ezagutza-sareko eragileentzat eta erakundeentzat:


- **Balio-proposamen argiko proiektuak, proiektu on eta ongi bideratutakoak egiten** lagun diezagun, gure lanaren eragina areagotzen, eta datuak ezagutza bihurtzen. Ikuspegi komuna izanik, eta bikaintasuna eta ezagutza zientifikoa ekarriz.
- Azken finean, **tresna erabilgarri eta moldagarria izan dadila**, funtsak esleitzeko ere lehentasun partekatuak ezartzen lagun diezagun, ezagutzaren sareko eragile guztiek elkarrekin partekatzen duten ekintza-esparrua oinarri izanik



PROIEKTUAK DISEINATZEKO, INPLEMENTATZEKO ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK



Gida honetan, hiru zutabeko prozesu baten bidez egitea proposatzen dugu biodibertsitateari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak. Zuek erantzuteko diren galderen ditu oinarri gidak, eta espero dugu proiektu berriak definitzeko edo daudenak berriz diseinatzeko balio izatea:



Hausnarketa partekatu honek finantzaketa publikoa eskuratzeko aurkeztu diren ekimenak ebaluatzeko ere balioko digu.


1) BALIO-PROPOSAMENA

Hau da gure proiektua diseinatzerakoan egin behar dugun lehen galdera:

Nola eta zertan hobetzen du proiektuak EAEko biodibertsitateari buruzko ezagutza?

Horrek esan nahi du **gure erakundeari ez ezik sistema osoari ematen dion balioa ere aztertu behar dela**. Horretarako, kontuan izan behar dugu, ezagutza garatzeko, datutik abiatzea dela gure helburua, erabaki hobeak hartzeko aukera emango digun ezagutza.





Erreferentzia gisa irudi hori hartuta, hiru maila hauetako batean koka daitezke gure proiektuak:

- **DATUAK:** sortzen ditugun lehen mailako datuak integratzeko eta kudeatzeko gai izan behar dugu: Partekatu egingo ditugu? Eskura daude? Estandarizaturik? Erlazionaturik daude eskura ditugun beste datu batzuekin?
- **INFORMAZIOA:** informazio bihurtu behar ditugu datu horiek. Horrek esan nahi du: datuak interpretatzea, modelizatzea, joerak deskribatzea, datuetan oinarrituta aurreikuspenak egitea, adierazleak diseinatzea, bistaratzeak egitea...
- **EBALUATZEA ETA ULERTZEA:** datuak eta guk egindako ekintza bakoitzaren eragina aztertzeko eta ulertzeko gai izan behar dugu. Era horretan bakarrik izango baikara gai erabaki gokiak hartzeko.

Zer alderditatik lan egingo dugun argi dugunean, zer **BALIO GEHITUKO DUGUN** definitu beharko dugu.

Proiektua zergatik egingo dugun deskribatzeaz ari gara, eta zer ekarriko dion dagoeneko badagoenari edo egiten dugunari. Eta horri guztiari buruzko hausnarketa egitea, **argi edukita balioa erantsi diezaiokegula “zer egin” horri**



Horretarako, urrats hauek proposatzen dizkizuegu:



ZER BEHAR/ERRONKARI ERANTZUN BEHAR DIOGU?


Pentsatu sistema osoa kontuan hartuta.

- Laguntzen du arriskuan dauden edo babes-premia handiagoa duten espezieen eta habitaten jarraipena egiten?
- Badago informazio- edo ezagutza-hutsunerik planteatzen den eremuan?
- Laguntzen du datuak eta eskuragarri dagoen informazioa ulertzen?
- Sortzen ditu erabakiak hartzen laguntzen duten interpretazioak/ereduak/joerak?
- Ikuspegi zehatzagoa du?

ZER DAKAR PROPOSAMEN/KONPONBIDE BERRIAK?

Egin gogoeta azken emaitzaz eta prozesuaz.

- Proiektuak sortu nahi ditu... datuak? informazioa? ezagutza?
- Zertan bereizten da lehendik dauden irtenbideetatik? Eta egiten genuenetik?
 - Gehitzen dugu beste ikuspegi edo metodologia bat?
 - Sortzen dugu aurretik ez dagoen daturik/informaziorik/ezagutzarik?
 - Aurretik dagoen proiektu bat (norberarena edo besteren batena) hartzen du abiapuntu gisa, eta aurretik eginda dagoenetik eraikitzen du? Edo abiapuntu berri batetik abiatzen da?
- Nola garatuko da proiektua?
 - Sortzen du harreman/kolaborazio berririk sistemako eragileen artean?
 - Sortzen du lehen ez zegoen lekuan informazio-fluxurik?
 - Gehitu ditugu nazioarteko estandarrak?
 - Eskuragarri egongo dira emaitzak?
 - Ebaluatuko dugu?



ZER ONURA IZANGO DITU PROPOSAMENAK?

Pentsatu zer neurritan lagun dezakeen proiektuak erantzuna izan dadin...

- Eraginkorragoa (baliabideak optimizatzen ditu)
- Kalitate hobeagokoa (zehaztasuna, metodologia, nazioarteko estandarrak...)
- Eskuragarriagoa (jende gehiagorengana iristen da)
- Biderkatzailea (behar bati baino gehiagori erantzuten dio edo helburu bati baino gehiagori)
- Moldagarria eta malgua (ikasitakoa beste esparru edo xede-publiko batera eramateko balio du).
- Biodibertsitatearen eremuko gaitasun- eta ezagutza-sortzailea

NORK JASOKO DITU PROIEKTUAREN EMAITZAK?

Pentsatu proiektuaren zuzeneko eta zeharkako onuradunetan.

2) PROPOSAMENAREN KALITATEA

Nola definitu proiektu on bat? Zer elementu hartu behar ditugu kontuan?


Balio-proposamena zehaztu ondoren (zer ekarpen egin nahi dugun), egin nahi dugun hori egiteko proiektu on bat nola sortu izango da hurrengo urratsa. Proiektu on bat da, **diseinu errealista eta arrazoitua izanik, bilatzen genuena lortu dugun ebaluatzen** utziko diguna, **eta, aldi berean, behin hasitakoan ezustekoak sortzen direla kontuan izaten duena.**

Biodibertsitateari buruzko informazio-proiektuak funtsezkoak dira biodibertsitatea ezagutzeko, kudeatzeko eta babesteko. Horrelako proiektuetatik abiatuta, komunitate zientifikoak, ingurumen-erakundeek eta agintari publikoek **lurralde jakin bateko biodibertsitatea planifikatu eta baloratu, epe ertain eta luzerako joerak identifikatu, alerta goiztiarrak kudeatzeko sistemak ezarri eta giza jarduerak ekosistemetan duen eragina ebaluatu ditzakete.**

Biodibertsitateari buruzko informazio-proiektuak erabakiak hartzeko beharrezko oinarria dira, eta, beraz, **ondo planifikatutako eta oinarritutako proiektuak izan behar dira.** Plangintzak ez du asmo handikoa izan behar, eraginkorra baizik.



PLANGINTZA ON BAT EGITEKO ELEMENTUAK



1. Aurreko paragrafoan identifikatutako balio proposamenetik abiatuta, **PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIA ZEIN DEN** jakitea da lehen urratsa. Helburuak aukera ematen digu proiektuaren bidez lortu nahi dugun etorkizuneko egoera zein den zehazteko.

SMART teknika erabiliz gero erraz jakin dezakegu gure proiektuaren helburu nagusia ondo definitu dugun. Proiektuan jarri dugun helburuak ezaugarri hauek betetzen dituen aztertu behar da:

S-ESPEZIFIKOA	<i>Helburu batek behar bezain zehatza izan behar du, zer egin nahi dugun jakin dezagun eta proiektuaren amaieran lortu nahi dugun edo ez baloratu dezagun. Adibidez, "X-ri buruz eskuragarri dagoen informazioa hobetzea" edo "Y-ri buruz bistaratze soilak garatzea" helburuak ez lirateke behar bezain espezifikoak izango gure proiektuaren bidez horiek lortu diren (edo ez) baloratu ahal izateko. Ahalik eta gehien zehaztu.</i>
M-NEURGARRIA	<i>Helburu on batek egoera berri horretara hurbiltzen ari garen ala ez neurtzeko aukera eman behar digu. Batzuetan erraza izango da kuantifikatzea (kopuru batetik bestera pasatzea, ehuneko jakin bat gehitzea edo kentzea, zerbait lehen aldiz egitea, ekintza kopuru jakin bat egitea ...), baina beste batzuetan ez hainbeste (portaera aldaketak, sentsibilizazioan eragina... neurtzen ditugunean). Hala ere, egiten duguna gutxi gorabehera neurtzeko moduren bat aurkitu behar dugu.</i>
A-EGINGARRIA	<i>Anbizioa izanik pentsatzea da, baina pasatu gabe. Helburuak ondo definitzeak helburu horiek lortzeko egin behar den ahalegina eta kostua neurtzera garamatza, zer dugun eta zer behar dugun hori lortzeko, noren laguntza behar dugun... Proiektuan zer baliabide jarriko ditugun hausnartzea da kontua, errealitate bihur dadin Adibidez, helburuak definitzerakoan, gerundioa erabiltzen da askotan (eskainiz, inbertituz...), edo "ahal izateko" edo "honen bidez" esamoldeak.</i>
R-GARRANTZITSUA	<i>Proiektua garatzea zergatik den garrantzitsua jakiteko informazioa eman behar digu proiektuaren xedeak. Helburu bat garrantzitsua izango da baldin eta interesa izan badezake zure xede-publikoarentzat (zertan laguntzen dion zure</i>

	<i>proiektuak) edo zure erakundearentzat (zer gehitzen dion biodibertsitate-eragile gisa duzun zereginari).</i>
T-MUGATUA DENBORAN	<i>Azkenik, ondo definitutako helburu bat, helburua lortzeko zenbat denbora dugun kontuan hartuta definitu behar da. Lortu nahi denaren eta horretarako beharko den denboraren arteko kalkulu errealista eta arrazoizko batean oinarritu behar da.</i>

2. Garrantzitsua da, halaber, **PROIEKTUAREN ERDIGUNEA** zein izango den zehatz erabakitzea.


Proiektuaren erdiguneak zer landu behar dugun zehaztea dakar, lehenik, berarekin:

- eremu geografiko jakin bat edo
- espezie jakin batzuk edo biodibertsitate-eremu jakin bat

Proiektuaren **denbora-horizontea** zein izango den ere definitu behar dugu: jarduera jakin bat egingo den urteko sasoi batean edo bestean, edo denboran zehar jarraipen-mekanismoak erabiltzea planteatzen den eta zer maiztasunarekin.

Azkenik, gomendagarria da proiektuaren **xede-publikoa** zehaztea, jarduketak identifikatzeko.

- Datuak informatu eta bildu behar izatea eta kalitatezkoak izatea nahiz datuak bistaratzeko proiektuan aipatzen den xede-publikoaren mende daude, hein handi batean.
- Eremu babestu bat kudeatzera bideratutako proiektu batek, adibidez, publiko bat baino gehiago hartu behar du aintzat, eta herritarren zientzian oinarritutako proiektu batek, berriz, publiko orokorrago bati erantzun diezaioke.
- Baliabideak mugatuak direnez, garrantzitsua da zehaztea nor izango den proiektuaren azken onuraduna eta bildutako informazioa nola transmitituko eta komunikatuko den.



3. Proiektuaren helburu nagusia eta erdigunea zehaztu ditugunean, proiektua garatzeko eskura dauden **BALIABIDEEI** buruz pentsatzeko garaia da.

Zer baliabide ditugun eta zein lor ditzakegun aztertzea (kolaborazioen bidez, adibidez). **Baliabide bat egin nahi dugun proiektua antolatzeko eta gauzatzeko behar dugun guztia dela** kontuan hartuta. Baliabideak izan daitezke:



BALIABIDE EKONOMIKOAK

Proiekturako bidera daitezkeen gure baliabideak edo beste inorenak.

PROZESU-

BALIABIDEAK

Proiektuan beharko ditugun metodologiak,

HARREMANAK

Gure erakundeko kapital sozial guztia: prozesuan lagun diezaguketuen kideak, kolaboratzaileak, gizarte-masa, bezeroak, hornitzaileak...



EREMUAK

Gure jarduera egiteko beharrezkoak diren instalazioak edo tokiak.

EKIPAMENDUA

Zeregin bat egiteko tresnak, gailuak eta materialak

PERTSONAK / GIZA KAPITALA

Beharrezkoa izango da zer nolako taldea beharko dugun kontuan hartzea (zenbat pertsonaren laguntza beharko dugun eta noiz), baina baita zenbateko ezagutza edo egiten jakitea gehitu behar dugun ere (prestakuntza edo profila).

4. Halaber, proiektuaren plangintza-fasean, garrantzitsua da hausnartzea **NOLA KUDEATUKO DUGUN** prozesuan zehar sortuko dugun informazioa.

Biodibertsitatearen gaineko informazioari buruzko proiektu batean beti sortzen da informazio berria (datuak, txostenak, ebaluazioak eta abar). Helburu partekatua bada informazio hori erabakiak hartzerakoan baliagarri nola bihurtu, partekatu egin beharko dugu, ezagutza-iturri izan dadin. Plangintzan oso presente eduki behar dugun zerbait da: nola kudeatu sortutako informazioa, bai barruan, bai kanpoan (hedapenean edo sentsibilizazioan oinarrituta).

Kontuan hartu beharreko lehen alderdia da **INFORMAZIOA DIGITALIZATZEA**. Digitalizazioa, gaur-gaurkoz, ezinbesteko zerbait da, eta, horrenbestez, abiapuntu on bat izateko zer formatu eta estandarrekin lan egin aurreikusi beharko dugu. Garrantzitsua da, halaber, datuak kudeatzeko erabiliko dugun aplikazioa edo softwarea ondo aukeratzea (biodibertsitateari buruzko informazioa biltzeko, tratatzeko eta banatzeko prozesuak).

Bestalde, interesgarria da zehaztea **INFORMAZIOAK IRUDIRIK, SOINURIK EDO BIDEORIK IZANGO DUEN**. Multimediaren erabilerak informazioa aberastu dezakeelako, baina geroko tratamendua zaildu.



BILKETA- ETA DIGITALIZAZIO-PROZESURAKO BEHARKO DEN AZPIEGITURA TEKNIKOA EDO TEKNOLOGIKOA

ere zehaztu beharko da.


Sarean lan egiteak berez dakar elkarren artean bateragarri diren formatu eta prozesuekin lan egitea, eta, beraz, erabiltzen ditugun plataformek Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemarekin izan beharko dute.

Kanpoko informazioa kudeatzeari dagokionez, beti komeni da pentsatzea zer beste erabilera izan dezakeen guk sortzen dugun informazio teknikoago edo espezializatuago horrek. Hizkuntza sinplifikatzea eta eduki nagusiak laburtzea funtsezkoa da (interesa erronkan jarrita eta proiektuak biodibertsitatea kontserbatzeko zer ekarpen egin duen kontuan hartuta); izan ere, hedatu nahi den edozein produktutarako oinarri dira. Informazioa ondo kudeatzen badugu eta sentsibilizazio-ekintzekin uztartzen, proiektuan pertsona gehiago sartzen lagun diezaguke.

5. Aurreko guztiari buruz hausnartu ondoren, **LAN-PLAN** bat egiteko unea da.

Lan-plan bat eskema bat baino ez da; hor jasoko ditugu proiektuaren esparruan zer egiteko izango ditugun, eta adieraziko dugu noiz eta nork egingo dituen.

Horretarako, alderdi hauek jaso behar dira:



Gainera, biodibertsitateari buruzko informazio-proiektu batean, bereziki hartu beharko ditugu kontuan informazioaren kudeaketan eragin zuzena duten zeregin guztiak. Adibidez:

- **Datu-baseak erabiliko diren edo ez**, kontuan hartuta izaera komertzialekoak, kode irekikoak eta operatiboak diren, eta gordailu eta sare globalekin bateragarri diren eta abar.



- **Lan-prozesua**, horren barruan daudela: informazioa bildu denetik izan den informazio-fluxua, informazioaren kalitatea aztertzea, irudiak hartzea edo ez, informazioa antolatzea eta prozesatzea, eta informazioa biltegitratzea eta modu egituratuan gordetzea.
- **Zer arrisku dauden**, backup-estrategiak edo proiektua garatzea zailtzen edo eragozten duten bestelako gorabeherak barne.

Lan-plana eginda dugunean, berraztertu egin behar da.

Erantzuten dio pentsatutako helburuari? Ondo bideratuta dago? Badugu nahikoa baliabide? Ondo zehaztu dugu nork, noiz eta zer egingo den? Zuzendu eta idatzi berriz beharrezkoa den guztia!

PLANGINTZATIK HARAGO DOAN URRATSA – GAUZATZEA ETA EBALUATZEA

Behin proiektua planifikatu eta gauzatze fasean sartzen garenean ere, dena hankaz gora jar daiteke. Diseinu on batek abiapuntu on bat izaten lagunduko digu, baina jakin behar dugu oso gutxitan garatzen direla proiektuak aurrez pentsatu bezala.

Horregatik, garrantzitsua da aurreikustea zer arrisku edo oztopo izan daitezkeen eta haiei buruzko gogoeta egitea (presiorik eta presarik gabe), eta, halakorik gertatuz gero, zer konponbide inplementa daitezkeen pentsatzea. Proiektuekin erlazonatutako **ARRISKUAK KONTROLATUTA**, aukera izango dugu, gainera, behar besteko aurrerapenarekin ulertzeko puntu kritikoak zein diren eta zein ez. Azken helburuan ez dute garrantzia bera izango planifikatzen ditugun fase guztiek, ez eta proiektuaren emaitza guztiek ere.

Garrantzitsua da nahitaez egin edo garatu behar ditugun ekintzetan izan daitezkeen arazoei zer erantzun eman lantzea. Adibidez, proiektuetan izaten den arrisku ohikoenetako bat da (eta aurreikus daitekeena) proiektuan parte hartuko zuela adierazi zuen kideren batek ezin duela parte hartu adieraztea. Demagun X erakundeak proiektua aurkeztu aurretik konpromisoa hartu zuela proiektuan parte hartzeko, baina orain adierazi digula ezinezkoa zaiola denborarik ez duelako.

Arriskuak ondo kudeatu izan bagenitu, gertatu aurretik erantzunda izango genituzke galdera hauek, eta une jakin horretan aukera baliozkoena edo ahal zena hartzeko gai izango ginatke, denbora eta eraginkortasuna irabaziz. Hona hemen zer galderari erantzun beharko geniekeen:

- Ezinbestekoa da erakunde honek parte hartzea? Edo hartu ditzakegu haren zereginak gure gain emaitzetan eragin gabe?



- Ordezkarria da? Ezagutzen dugu antzeko ekarpena egin dezakeen beste erakunderen bat? Erraz jar gaitzke harremanetan erakunde horrekin? Nork lagun gaitzake?
- Erakunde horren (eta ez beste baten) laguntza behar badugu, egin dezakegu zerbait parte har dezan? Adierazi duen arrazoia denbora falta bada, gutxitu dezakegu kide horrek proiektuan duen inplikazioa? Edo gehitu dezakegu beste kolaboratzaile bat, egin beharreko horretan lagun diezaion?

EBALUAZIOA da beste alderdi kritiko bat.

- **Zer lortu dugun eta zer ez.** Ekintza bakoitzaren emaitzak (entregatzekoa, adierazlea ...) nolakoa izan behar duen definitzen zenbat eta zehatzagoak izan, orduan eta errazagoa izango zaigu jakitea desbideratzen ari garen edo bilatzen ari garen hori lortzen ari garen. Garrantzitsua da jasotzea, halaber, zer egin ez dugun eta zergatik, beti ez baita seinale txarra izaten: denboraren edo arriskuen kudeaketa txar baten ondorio izan daiteke, baina baita ere planifikatutako ekintza bat emaitza lortzeko beharrezkoa ez zelako, edo bi zeregin bakar batean bildu direlako.

Interesgarria izango da aztertzea, halaber, proiektuak, zuzenean edo zeharka, lagundu duen erabakiak hobeto hartzen, biodibertsitatea kontserbatzeko eremu espezifiko batean.

- **Nola lortu dugun.** Garrantzitsua da beti proiektuak honetan lagundu digun pentsatzea eta galdetzea (ebaluazio-galdetegi bidez edo erantzuna baduten pertsona edo erakundeekin bilerak eginda):
 - Lantaldean gaitasunak eta ezagutza garatzen edo finkatzen
 - Beste harreman, kontaktu edo aliantza batzuk sortzen
 - Gure posizionamendua hobetzen
 - Zeharkako elementuak sartzen: teknologikoak, hizkuntzen erabilera eta kudeaketa, genero-berdintasuna, lurraldetasuna...
 - Jarduera orokor batek biodibertsitatean duen eraginaren berri emateko lana egiten
- Azkenik, interesgarria da beti hausnartzea zer ekarpen bereizgarri egin dugun gure proiektuarekin. **Irtenbide bat baino gehiago egon daiteke**, bai tokian-tokian, bai estatuan edo nazioartean, eta interesgarria da hauek aztertzea:
 - zer ikas dezakegun horietatik gure proiektua hobetzeko
 - eta zer ezaugarri dituen gure proiektuak, zeinak desberdindu egiten baituten eta bakar bihurtzen beste erakunde batzuen proiektuetatik.



3) ORIENTAZIO ESTRATEGIKOA

Nola batu alderdi
interesdun guztien
ahaleginak eta ahalbidetu
biodibertsitatea modu
integratuan ulertzen?

Ekintza-planean jasotzen den bezala, ikuspegi komun eta partekatu baterantz aurrera egiteko, rol aktiboagoa eduki eta erantzunkidetasun-esparru bat behar da. Horrek esan nahi du, **gure erakundearen eta proiektuaren helburuetatik harago, ezagutzaz elikatu behar dugun sistema baten parte garela**, erabakiak hobeto hartzeko.

Eraikuntza estrategikoko prozesu honetan, **GBIOren esparruan lehenetsitako irizpideak hartu ditugu abiapuntutzat. Irizpide horiek aukera bat eskaintzen dute alderdi interesdun guztien ahaleginak bateratzeko eta, horrela, biodibertsitatea modu integratuan ulertzeko**. GBIO esparruak **lau eremu nagusi** identifikatzen ditu, zein bere **oinarrizko osagaiekin**, ahaleginak eta funtsak koordinatzen laguntzeko.

GBIO esparrua gidan txertatzeko, behar-beharrezkoa izango da **laugarren dimentsio bat sartzea, erabakiak hartzeari buruzkoa; horrek zaintzaren, ebaluazioaren eta informazioaren esparru integratu bat ezartzea** ahalbidetuko digu, narriadura naturala, biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioa eteten lagunduko duten politiken exekuzio-mailari dagokionez.

Esparru hori Euskadin erabiltzen badugu -osatuz eta tokiko gure premietara egokituz-, aukera izango dugu **lehendik dauden ekimenak hobeto koordinatzeko eta integratzeko** (hasi lokaletik eta globalera bitartean).



Kultura

- Datuen elkarlaneko kudeaketa irekia
- Datuen estandarrak
- Datuak trukatzeko politikak eta pizgarriak.
- Epe luzerako biltegiatze- eta artxibatze-sistema

Datuak

- Iturri guztietako datuak mobilizatzea
- Datuak behin jasotzen dira, eta gero berrerabili egiten dira.
- Era guztietako iturriek ematen dituzte datuak (behaketek, sekuentzia eta genomak, bildumek, sentsoare automatizatuek)

Ebidentziak

- Datuak ebidentzia bihurtzeko tresnak
- Elkarlana datuak erabiltzeko kalitatea eta gaitasuna hobetzeko
- Esparru taxonomikoa
- Espeziei buruzko integratutako datuak (ezaugarriak, elkarreraginak, ...)

Ulermena

- Biodibertsitatea eta guk harengan dugun eragina ulertzea
- Ereduetan eta bistaratze-tresnetan ebidentziak aplikatzea
- Hutsuneak identifikatzea etorkizunean datuen bilketak lehenesteko

Erabakiak hartzea

- Politika publikoen emaitzak hobetzea
- Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, eskura dugun ezagutzarik onena aplikatuta




Abiapuntu hori lantzeak, hura lehenesteak eta tokiko errealitatera eramateak, partaidetzatailerretan parte hartu duten erakunde eta pertsonen lankidetzak izanik, sistema gisa zer erronkaren gainean jardun behar dugun identifikatzen lagundu digu.

Euskadin biodibertsitatea kontserbatu nahi duen proiektu eta ekintza bakoitza, informazioaren kudeaketa eraginkorrago eta orientatuago baten bidez, ekarpen berezi eta propio bat egiten saiatu behar da erronka partekatu gisa identifikatu dugun horri. Proiektu bakoitzaren balioaz harago, gai izan behar dugu multzoak behar duen horri balioa emateko.


BAINA ZEIN DIRA ERRONKA HORIEK, ZEINETARA GURE EKINTZA BIDERATU BEHAR BAITUGU?

Prestakuntza, gure sistemaren giltzarri.

Gure gaitasunak eta ezagutza areagotzeko gai izan behar dugu. Horrek esan nahi du proiektuek espazioak sortu behar dituztela ezagutza pertsonen eta erakundeen artean transferitu eta partekatu ahal izateko. Era berean, esan nahi du zer eragile edo pertsonekin (zer ezagutzarekin) konektatu eta elkarlanean aritu behar dugun identifikatu behar dela. Proiektuetan, gainera, profil desberdinetako pertsonak parte har dezakete: ikertzaileek, adituek, herritarrek... Hazkundera eta gaitasun berriak garatzea ahalbidetuko duten ibilbideak sortu behar ditugu. Eta sareko eragileek ezagutzak eta gaitasunak aitortzean eta legitimatzean oinarritutako balidazio-sistema banatu baterantz aurrera egin.




Ekintza Planean dagoeneko identifikatuta dator erreferentzia estrategiko gisa har dezakegun jardunbide egoki bat:



Landa-azterlanetarako Kontseilua, FSC; Erresuma Batuko ingurumen-hezkuntzako ongintzako erakunde bat da, eta ingurumena aurkitu, aztertu eta ulertzeko informazioa, eta adin eta trebetasun guztietako pertsoneri zuzendutako aukerak eskaintzen ditu.

BioLinks FSC erakundearen proiektua da identifikatzen zailak diren espezieak identifikatzeko eta datu gutxi dauzkan espezieak erregistratzeko goi mailako boluntarioen trebakuntza bultzatzea. BioLinks prestakuntza-ibilbidearen eskema argia emateko diseinatu da, hau jakiteko: proiektuaren jarduerak nola bideratuko duten boluntarioen garapena funtsezko lau kompetentzia hauetan: Ezagutza, Trebetasunak, Motibazioa eta Konfiantza. Boluntarioek haien kompetentzia-maila ebaluatzeko erabili dezaketen tresna bat da, eta zehazteko zein jarduera diren egokiak haientzat.



Irekitasuna, berrerabilpena eta gardentasuna, lan-printzipio gisa

Ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzeko, datuak informazio eta ezagutza bihurtu behar dira. Horrek esan nahi du irekita lan egitea, dagoena berrerabiltzea eta informazioa errazago ulertzen lagunduko digun horretan guztian aurrera egitea: joerak, iragarpenak, testuinguruan kokatzea, bistaratzeak...

Zehazkiago, eta datuei dagokienez, proiektuek era honetako neurriak eduki beharko dituzte:

- Datu irekien politika izatea, eskuragarritasun-, sarbide-, berrerabilpen- eta birbanaketa-irizpideak beteko dituena.
 - Informazioa erabiltzeko eta jasotzeko nazioartean onartutako estandarrak erabiltzea.
 - Emaizak eskuratzeko moduan edo indexatuta argitaratzea.
 - Informazioa automatikoki prozesatzeko moduan erabil dadila aurreikustea.
 - Informazioa lekuan bertan biltzeko tresnak eta prozesuak sartzea, datuak hustu eta automatikoki erabiltzeko.
 - Datuen erregistroak berrikusteko mekanismo estandarizatu, garden eta publiko bat aurreikustea.
 - Biodibertsitateari buruzko datuetan hutsuneak hautematea eta serie historikoen osotasuna hobetzea.
 - Multimedia-informazioaren eta egituratu gabeko informazioaren bilketa eta prozesatzea egokitzea, nazioarteko estandarrak betez.
- Biodibertsitateari buruzko informazioa hobeto ulertzeko ekintzak bultzatzea:
 - Datuak bistaratzeko tresna dinamikoak sartuta, biodibertsitatea hobeto ulertzeko.
 - Iragartzeko eta joerak aztertzeke eruedetarako datuen erabilera bultzatuta.
 - Zaintza- eta monitorizazio-sistema kontuan hartuta, alerta goiztiarrak sortzeko.
- Biodibertsitateari buruzko informazio-sare globalak elikatzen laguntzea.


Ezberdinen artean elkarlanean aritzea, proiektuak aberasteko formula delako

Sarean lan egiteak eta aliantza berriak sortzeak aukera ematen digu proiektura eta gure ohiko jarduerara gaitasun eta ezagutza osagarriak gehitzeko.

Begirada eta ikuspegi berriak, teknikak eta lan-prozesuak txertatzeak sortzen dugun informazioaren balioa maximizatzen lagunduko digu, eta politika publikoen zikloari balioa ematen (informazioa erabakiak hartzeko oinarri).

Era berean, beste diziplina edo jakintza-arlo batzuetako eragile eta pertsonekin elkarlanean aritzeak eragin positiboak ditu honako hauetan:





Alde horretatik, proiektuek urratsak egin beharko dituzte honetarako:

- Zeharkako begirada txertatzeko, biodibertsitatean espezializatuta ez dauden sektoreak inplikaturatu.
- Politika publikoak erabakitzen dituzten unitate eta pertsonekin komunikazio- eta atzeraelikadura-mekanismoak aztertzeko.

Oinarri soziala indartzea, herritarrek biodibertsitatea kontserbatzen parte hartzeko ekintzak sustatuz

Lantegietan parte hartu duten eragileek identifikatutako erronka handienetako bat izan da nola indartu oinarri soziala eta nola bermatu belaunaldien arteko nahitaezko erreleboak dakarren ezagutzaren eta esperientziaren transferentzia.

Herritarrek proiektuetan parte har dezaten, garrantzitsua da:

- Parte-hartze horren balioa onartzea – zer emaitza izan daitezkeen hari esker, eta zer eginkizun duen proiektuan, oro har.
- Tokiko eragileak inplikatzeko saiakerak, testuinguruan kokatutako parte-hartzea sustatzeko, heldu nahi diogun erronkatik hurbilen dagoen komunitatea konponbidea bilatzeko interpelatuta senti dadin.
- Proiektuaren informazioa eskuratzeko erraztasunak ematea; horretarako, zergatik eta zertarako parte hartu azaltzen duten komunikatzeko eta material espezifikoak garatzeko erabiltzen dugun hizkuntza egokitu behar da.

Horrenbestez, interesgarria da honi buruz gogoeta egitea:

- Proiektua herritarren zientzia-ekimenetan edo crowdsourcing ekimenetan oinarrituta dagoen, gida honetan deskribatutako tresnak erabilia.



- Proiektuak herritarren zientziaren ikuspegiak sustatzen dituen, biodibertsitatea zaintzeko eta datu berriak sortzeko.
- Proiektuak belaunaldien arteko harremana aurreikusten duen, eta adin desberdinetako pertsonak parte hartzen duten ekintzak jorratzen dituen.
- Proiektuak toki-erakundeekin kolaboratzen duen, proiektua inplementatzeko eta garatzeko.
- Proiektuak zabalkundea eta herritarren arteko komunikazioa bultzatzen duten material berriak sortu dituen (lehenago, bitartean eta ondoren).

Proiektu bakoitzak behar dugun aldaketarako duen ahalmena mugatua da. Baina gutxi izangatik ere ugari badira, asko egiten dute. Gure egintza elkarlanean eraiki dugun esparru honetara ekartzen badugu, gure helburua betetzetik gertuago egongo gara.



